



Pello Salaburu, atzo Donostian bere liburuarekin. :: LOBO ALTUNA

«Liburu pertsonala da, aunitz kostatu zait, neurri batean biluztu naiz eta hori berria da»

Bidaia kronika, autobiografía, gogoeta eta narratibotik du Pello Salabururen liburu berriak: 'Errateko nituenak'

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Pello Salaburuk (Arizkun, Baztan, 1951) bere liburu pertsonalena aurkeztu zuen atzo: 'Errateko nituenak'. Cuzcoko kronika'. Oso liburu hibrido da, bidaia kronikatik, autobiografiatik, gogoetatik eta narratibotik duena. Eta badu beste bereizgarri nabarmen bat: hizkera. Salaburuk Baz-

tango euskalkiko hainbat gauza ekarri du liburu euskara batura.

«Bidaia surrealista bat» dago liburuaren oinarrian, atzokoan idazleak esan zuenez. «Euskal Herriko Unibertsitatean urteak egon ginen hizkuntza planifikazioari buruzko ikastaro bat antolatu nahian hango kitxuari begira. Eta azkenean, 2012an joan nintzen bertara, zortzi egun nituelarik ikastaro hori nola presta zitekeen ikusten». Hainbat gorabehera eta zailtasunen ostean, ikastaroa gauzatzen ari da; lehenengo astean joan zen Miren Azkarate eskolara ematera.

«Liburu pertsonala da. Aunitz kostatu zait. Neurri batean biluztu naiz eta hori berria da. Idaztean bi sentsa-

zio arraro sentitu ditut: batetik, luma joaten zitzaidan, eta ezin gelditu; bestetik, 'Pello Salaburuk hau idatzi al du?', jarraitu zuen. Bestalde, aitortu zuen neurri handi batean seme Peruk bultz eginda ekin ziola idazketari.

Astebeteko kronika omen da, «nahiz eta etengabe tokiz aldatzen naizen, Cuzcotik Baztana, handik Amsterdam edo Parisa, berriz ere Cuzcok... Liburu puzzle bat da».

Autoreak gomendatzen du liburu hasierarik bukaerara irakurtzea, osorik. «Badira pasarte batzuk morbo eragingo dutenak, adibidez Euskaltzaindiari buruzkoak, baina

Salabururen iritziz hobe da horrelako zatietara ez mugatzea. Jakina denez, iazko urte bukaera aldera gatazka gertatu zen Salaburu (Gramatika Batzordeko burua) eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren artean. Nolanahi ere, liburuaren ager-tzen diren Akademiari buruzko pasarteak krisialdi hura baino bost bat hilabete lehenago idatzitakoak omen dira. Ordurako entregatua zuen emaitza.

Bestalde, Salaburuk uste du liburu ez dela ez autobiografía eta ez saiakera, eta «historia batzuk istorio» bihurtu ditu, hau da, narratibotik fikzio-kutsua eman dio zenbait pasartetako prosari.

Hain zuzen ere, Salabururen narratibotik azpimarratu zuen atzo Anjel Lertxundik, egileak gonbidatuta jardundako beste hizlariak. «Gauzak kontatzen dakien idazle bat deskubritu dut hemen. Idazkera zorrotza eta artifiziorik gabekoa darabil. Hitzeko apustua dago hemen, eta ematen den fruitua hitzetzkoa da».


Lertxundiren iritziz, Salaburuk asmatu egin du bere prosari Baztango ukitua ematean. «Arazo handi bat dugu gaur egungo euskal prosan: tonuen berdintasuna. Testutik testura gabiltzalarik, berdintasuna sumatzen dugu, eta ezin bereizi zer norena den. Liburu honetan ez dago halakorik. Euskaltzain oso batek -batuaren sustapenari bizitza akademiko guztia eskaini diona- oraingoan zer ekarriko eta Baztango euskalkia! Liburu irakurtzean, miraria gertatzen da, ze naturala den! Pentsatzen du batek, nahiz eta Baztango hizkera menderatu ez. Liburu hau ona litzateke euskara estandarrean balego ere, baina Baztango hizkeratik abiatze horrek plus bat ematen dio. Hala ere, hurrengo liburuaren, behar bada beste errejistro bat planteatu beharko du, edukia bestelakoa izango delako».

Hizkeraren gai horri buruz hau esan zuen autoreak: «Ahalgin handia egin dut batua deitzen diogun hori osatzeko. Eredu neutroegia baita indarrean. Idazle gehienak giopuzkoarrak zarete eta zuen hizkeran idazten duzue. Nik, Baztan ez ezik, Lapurdi eta Baxenafarroako gauzak sartu ditut».

'Nada que perdonar', una novela de intriga con la II Guerra Mundial de fondo

:: F. I.

SAN SEBASTIÁN. Alberto Ladrón Arana (Pamplona, 1967) es uno de los escritores en euskera con más tirón popular. Está centrado desde hace ya más de una década en novelas de intriga y misterio, y el año pasado se decidió a traducir una de ellas al castellano: 'Las manos del carpintero'. Ahora reincide con 'Nada que perdonar', una historia ambientada básicamente en la Navarra actual, llena de giros inesperados y con la II Guerra Mundial como telón de fondo.



NADA QUE PERDONAR ALBERTO LADRÓN ARANA

Argitaletxea: Bertoa. Orrialdeak: 240. Prezioa: 18,50 euro.

El libro muestra a Mikel, funcionario de la Hacienda de Navarra, que no atraviesa por su mejor momento. Se encuentra de baja por depresión desde que su mujer lo abandonó. Además, no puede evitar verse enredado en los problemas de su hermano Julien, siempre metido en líos. Recién salido de la cárcel, ha dado fuego a una clínica de desintoxicación y ha desaparecido, dejando tras de sí rastros bien preocupantes. Lo buscan tanto el inspector Armentia, de la Policía Foral, como una banda de narcotraficantes ucranianos. También pregunta por él Lucía, una guapa andaluza que llega a Pamplona con su propia mochila cargada de problemas, en busca de pistas sobre un oscuro suceso relacionado con los nazis en el que se vio envuelto su abuelo.

El zarauztara Iago Rey recibe la beca artística Daniel Txopitea

Su proyecto 'Reactivar ocultando' pretende estimular el interés por el patrimonio escultórico de Zarautz

:: ANTXON ETXEBERRIA

ZARAUTZ. El zarauztarra afincado actualmente en Bilbao Iago Rey recibió ayer de la II Beca para las Artes Visuales 'Daniel Txopitea', dotada con 3.000 euros. El galardón lo explicó su proyecto, que pone es-

pecial atención en algunas esculturas del patrimonio artístico de Zarautz. 'Reactivar ocultando' (Estalitz berpiztu) es el título de su proyecto, que desarrollará durante el verano. En concreto, se trata de analizar la reacción de los vecinos al ver las esculturas cubiertas para a partir de ahí crear una instalación artística con imágenes de vídeo, fotografía y audio.

«Tenemos en Zarautz una gran cantidad de patrimonio artístico cultural que no le llama la atención, que está integrado en el paisaje y la

gente pasa al lado de las obras sin mirárlas ni cuestionárlas. Con mi intervención, de la que no quiero dar más pistas para que la reacción de la gente sea más espontánea, pretendo destacar el patrimonio que tenemos en el municipio».

El jurado, formado por los artistas 'Keixeta', Ainhize Txopitea, Ismael Manterola, Zuhar Iruretagoiena, Javier Balda y el concejal de Cultura Gari Berasaluze, fue unánime a la hora de conceder la beca a Iago Rey.

En el acto de ayer, además de Iago, Gari y la propia hija de Txopitea, Ainhize, participó la escritora Luisa Etxenike, quien explicó que conoció a Txopitea «cuando yo empezaba mi carrera literaria y como editora y él dirigía la Galería Altxerri de San Sebastián. Me parece muy acertada la concesión de la beca a Iago, ya que coloca la reflexión sobre el arte en el centro de la plaza».



Iago Rey muestra la acreditación de la beca. :: ETXEBERRIA